

PAZKOA:  
JESUSEN BERBIZKUNDEA ,  
GURE FEDEAREN ARDATZA

1.-

Judeguk egiten eben lez, geuk bere Pazkoa udabarriko leenengo illargi beteagaz batera ospatzen dogu. Orregaitik Aste Santuko egunak aldatu egiten dira urte batetik bestera. Aste Santua, barriz, kristauontzat urteko "Aste Nagusia" dogu, aste onetan ospatzen doguzalako gure kristau fedeko misteriorik garrantzitsuenak: Jesusen Nekaldi, Eriotz eta Berbizkundera.

"Jesusek argi eta garbi esan entsen bere ikasleei: Berak Jerusalemenera joan bear ebala eta an Legebatzarreko, abadeburu eta idazlarien aldetik neke asko eroan bear izango zituala baita eriotza ere, eta irugarren egunean biztu egingo zala" (Mt. 16,21). Olan ba, Jesusen historia ez zan amaitu bariku santuan, kurutzeko eriotzean. Jainkoak biztu egin eban Jesus illen artetik. Orregaitik, alaitasunez beterik abesten dogu Pazko aldiari: Biztu da Kristo, aleluia! Guregan dago, aleluia!

*Jesusen bizituera ori zelan ulertu*

Baiña bizituera ori zelan izan zan ulertu bear dogu. Edozelan ere, Jesusen bizituera ez zan izan Jesusen gorpua mundu onetan bizi zala eduki eban bizitzara barriro itzultzea. Ez, Jesusen bizituera benetako berbizkundera izan zan. Jesusen bizituera kreazino barri bat izan zan, Jainko-Aitarean bitartez, jaiotza barri bat, pertsona barri bat eta mundu barri bato

*Jesusen bituerea egiazko gertakizun bat da*

Jesusen bizituera au ezin daiteke egiaztatu gaurko historigileak erabilten dituen dokumentu eta tresnakin. Adibidez, argazkilari batek bere argazki-kamarakin ezin izango eban artu gertakizun au. Baiña, alan ere, Jesusen bizituera egiazko gertakizun bat izan zan. Jerusalemenean gertatu zan eta ezaugarriak oso argiak izan ziran.

Adibidez, bere ikasleak, Jesus atxilotu, epaitu eta kurutzean iltera galdu ebela ikusirik, bildurrez beterik, eskutatuta bizi ziran ikasleak, Jesus berbiztuaren esperientziak eraginda, beldur barik Ebanjelioa zabaltzen hasi ziran.

Orrez gainera, Pedro ta beste Amaika apostoluen testigantzeari esker, leenengo kristau komunitateak sortu ziran Jerusalem.

#### *Jesusen biztuera siñistea*

Jesusen biztuera onek historia gainditu egiten dau, baita gure historia eraldatu ere. Orregaitik Jesusen biztuera egiazko gertakizuna izanik, *fedearen bidez* bakarrik onartu daiteke. Olanxe ikusi eben leenengo kristauak eta Jesus berbiztuagaz izan zituen esperientziak kontaketa batzuen bidez azaltzen deuskuez. Kontaketak oso desbardinak dira eta gure mentaliterako pixkat arraroak. Zergaitik? Desbardinak dira, apostolu edo talde bakoetak Jesus berbiztuaren esperientzia, bakoetak bere erara kontatzen ebalako. Bestetik esperientzia orreek azaltzea ez zan batere erraza Jesusen izatea eta egoerea gure historiatik kanpo, Jaungoikoagan dagozalako. Edozelan ere, leenengo apostoluen prediku eta itzaldien ardatza Jesusen biztuera izan zan eta Jesus berbiztuaren fedeagaitik emon eben martiri euren bizitza.

#### *Gure fedea Jesus berbiztuagan*

Eta guk, gaurko kristauok, zer sentitzen dogu Jainkoak Jesus berbiztu dauala siñisten dogunean? Da, Jesus berbiztuak arrazoia eukala.

Izan bere, orain, Jesus berbiztuari esker, badakigu Jainkoak bizitza maite dauala. Orregaitik Jesusentzako premiazkoagoa zan gaisoen osasuna, larunbateko lege eta tradiziño guztiak baiño.

Orain, Jesus berbiztuari esker, badakigu Jainkoak errubako biktima guztiei justizia egiten deusela. Orregaitik, eriotza dan lekuan, bizitza jarri daigula; gaiztakeria dan lekuan, ontasuna; guzurra dan lekuan, egia; gorrotoa dan lekuan, maitasuna.

Orain, Jesus berbiztuari esker, badakigu Jainkoa mundu onetako kurutzeratuekin identifikatzen dala, iñoiz ere ez borraroeekin. Orregaitik obeto ulertzen dogu zergaitik egoten zan Jesus sufritzen egozanekin eta zergaitik defendatzen zituan pobreak, gosekilak eta baztertuak, geu ere errukiorrak izan gaitezan.

Jesus berbiztu dan eskero, orain badakigu betiko bizi dana eta bi edo iru lagun bere izenean alkartzen gareanean, geure artean aurki dagoala. Orain badakigu Jainko-Aitarenganako bidean ez gagozala bakarrik, bide onetan Jesus berbiztuak laguntzen deuskula.

Eta Jesus berbiztuagan siñistek auxe esan nai dau: ez nekeak, ez injustiziak, ez minbiziak, ez infartoak, ez metraileteak, ez pekatuak, ez eriotzak ez daukela azkeneko berbea. Azkeneko berbea Jesus berbiztuak daukela, Bera dalako bizitzaren eta eriotzaren Jauna:

"Neu naz berbizkundera eta bizitza; Niregan siñisten dauana, ilarren ere biziko da; eta Niregan siñistuez bizi daitena, ez da iñoiz ilgo. Siñisten dozu au?" (Jn. 11,25).

Garitaonandia eta Sarduitar Jesus  
Begoñako · Santutegiko Erretora